

Grupo MASMOVIL elige Bizkaia como sede de su nuevo centro de I+D e innovación

- Euskaltelen instalazioetan kokatuko da, eta alderdi hauek bultzatuko ditu: adimen artifizialaren garapena eta Gauzen Interneti, sareei eta konektagarritasunari, datu-analitikari eta zibersegurtasunari lotutako ekimenak.
- Zentroak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa du, tokiko talentua bultzatuko du, eta profesionalak eta startup teknologikoak erakarriko ditu Euskadiko erakunde batzuekin lankidetzan arituta.
- Berrikuntzagune berriak 2.600 m² ditu eta Euskaltelek Derion dituen instalazioetan dago.
- Euskaltelek 115 ingeniari baino gehiago ditu Euskadin, eta aurreikusten du datozen hiru urteetan zuzenean 40 profil tekniko hartzea, baita zeharka ere, Zentroan instalatuko diren partner-sareko proiektuen traktore gisa.
- Euskaltelek biztanleriaren % 85i eskaintzen dio 5G konexioa, eta estatuko zuntz modernoaren bidez konektatzen ditu EAEko etxeen % 97. Hala, lider teknologikoa da lurraldean.
- MASMOVIL Taldea 350 milioi €-tik gorako inbertsioa ari da egiten, FTTH eta 5G azpiegitura modernoak eskaintzeko Euskadin.

Derio, 2023ko ekainaren 20a. - **MASMOVIL Taldeak** gaur iragarri du **Derio (Bizkaia)** hautatu duela **I+Gko zentro berria jartzeko**. Zentro horretan, **berrikuntza-jarduerak bultzatuko ditu** azken belaunaldiko **produktu eta zerbitzuak garatzeko eta merkaturatzeko**; egiteko horretan, **teknologia berriak** erabiliko ditu, eta haien bidez Taldeko bezeroak **merkatuko gogobeteenak** izaten jarrai dezaten lagunduko du.

Berrikuntza-zentro horren eta I+Gren eremuko negozio-linea berrien garapenaren bitartez, MASMOVIL Taldeak Euskadirekin duen konpromisoa berretsi eta lurraldean duen presentzia sendotzen du. Hala, inguruko ekoizpen- eta enpresa- ehuna sendotu eta haren eraginkortasuna areagotzen laguntzen du.

Berrikuntzagune berria **Euskaltelek Derion dituen instalazioetan** egongo da, eta **2.600 metro inguruko azalera izango du taldearen jarduerarako**. Garapen berriak aplikatuko ditu **adimen artifizialean, zibersegurtasunean, sareetan eta konektagarritasunean, datu-analitikan eta telekomunikazioetako IoT-n**, besteak beste.

Gainera, zentroak tokiko talentua **erakarri eta atxikiko du, telekomunikazioen eta teknologia berrien esparruan lan egin nahi duten gazteak hartuko baititu, euskal operadoreak hezkuntzaren eta ikerketaren eremuetako Euskadiko erakundeekin dituen akordioei esker.**

I+Gko zentro berriak **Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa dauka**, zeina erabakitasunez ari baita bultzatzen **berrikuntza, hezkuntzako eta ikerketa- eta teknologia-garapeneko ekosistema,**

Gainera, 25 urte baino gehiago daramatza Euskaltekin harremanetan, eta ekintzailetzako eta berrikuntzako ekosistema paregabea sortu dute esperientzia horren bidez.

Jon Ander de las Fuentes Euskalteko zuzendari eta MASMOVIL Taldeko Euskadiko zuzendariak koordinatuko du berrikuntza-zentro berriaren proiektua. Euskadiko ekonomiari dinamismo handiagoa ekarriko dion berrikuntza-eredua bultzatzen duten enpresa gehiago ere erakarriko dituztelakoan dago, euskal *partnerren* eta ITren esparruko etorkizuneko *startupen* sare bat sortzeko.



I+Gko zentro berriaren instalazioak Bizkaiko Teknologia Parkean

Proiektu honetan sartzen diren enpresek beren **tokia izango dute Zentroan**. Horri esker, **garapen-prozesuak arinagoak izango dira, proba-bankuak izango dituzte ingurune errealetan eta haien produktu eta zerbitzuen eta berrikuntzen garapenerako *time to market* bizkorragoa izango da**. MASMOVIL Taldeak Euskadiren alde egin duen inbertsioaz gainera, **beste 350 milioi euro bideratu ditu lurraldeko telekomunikazio-azpiegiturak (zuntza eta 5G) modernizatzeko**; aurrekontu horretatik, dagoeneko **150 M€ inbertitu ditu Euskadin eta Nafarroan 2021eko udatik**.

Une honetan, **MASMOVIL Taldeak presentzia handia du Euskadin**. Hala, **1,3 milioi linea baino gehiago** ditu: 900.000 mugikorrekokoak eta 400.000 baino gehiago banda zabal finkokoak. Gainera, Euskaltelek **5G zerbitzuak eskaintzen dizkie EAEko biztanleen % 85i**, eta **EAEko etxeen % 97** zuntz optikoko sare modernoenera konektatuta dauzka. Horri guztiari esker, lider teknologikoa da herrialdean. Datu horiek agerian uzten dute **operadoreak emaitza onak dituela eta negozioa hazten eta sendotzen ari dela**.

“Harro gaude Derioko I+Gko zentro berri honekin oraingoan ere Euskadin Talde osorako berrikuntza bultzatzeaz. Euskaltelen indargune handietako bat izan da Euskadiko bezeroen beharretara egokitzen jakitea eta gure inguruko enpresen aliatu bihurtzea, joera disruptibo guztiei lehiakortasunez aurre egiten lagundu baitiegu. Gaur eman dugun pauso honek Euskadirekin dugun

konpromisoa indartzen du, eta bizi dugun iraultza teknologikoan lurralde berritzaile eta aitzindari gisa sendotzen gaitu”.

Berrikuntzako eta talentua erakartzeko gune berria

Euskaltelek Bizkaian sortuko duen I+Gko zentro berriarekin, **Euskadiko profesionalak lan-aukera berriak izango dituzte teknologiaren alorrean, tokiko erakundeekin egingo diren lankidetzari esker.**

Datozen hiru urteetan **berrikuntzagune berriko giza taldea osatuko duten profesional gehienak** — pixkanaka sartuko dira— **Taldeak euskal unibertsitateekin dituen hitzarmenetatik etorriko dira.** Hain zuzen, **Deustuko Unibertsitatearekin, EHUrekin eta Mondragon Unibertsitatearekin akordioak ditu Euskaltelek katedren, ikasgela teknologikoen, masterren edo graduondoko ikastaro batzuen bidez.**

Euskaltelek 115 ingeniariatik gora dauzka orain gure lurraldean, eta zenbateko horri **beste 40 profesional inguru gehituko zaizkio progresiboki datozen urteetan, lankidetzari horien emaitza gisa.**

Euskaltelek zentroan landuko dituen ikerketa-arloak

Adimen artifiziala telekomunikazioen munduan inplementatzera eta abangoardia teknologikoaren beste alderdi batzuetara (besteak beste, Gauzen Internet —IoT—, sareak eta konektagarritasuna, datu-analitika eta zibersegurtasuna) bideratutako ekimenak bultzatuko ditu zentro berriak. Espainian, AA, IoT eta 5G arloetan aurreikusitako jarduerak BPG osoaren % 1,62 hartuko du 2023an, eta 5Ga izango da hurrengo hamarkadan hazkunde handiena izango duen negozio-arloa. Halaber, MASMOVIL Taldeak/Euskaltelek bere sistemetan inplementatutako software-tresna propioak garatzen jarraituko du. Izan ere, kudeaketa-eredu berritzaile, bereizgarri eta oso arrakastatsuak lortu dituzte.



I+Gko zentro berriaren instalazioak, barrutik

Gauzen Interneti dagokionez (IoT), gailu adimendunen konektagaritasunean oinarritutako irtenbideen bilaketan eta garapenean zentratuko dira instalazio berriak. Horretarako, ikertuko da ea nola integra daitezkeen IoT sensore, eragingailu eta gailuak hainbat sektoretan negozio-aukera berriak sortzeko. Besteak beste, sektore hauetan: etxe adimendunak, hiri adimendunak, industria, osasuna eta nekazaritza.

Sareei eta konektagarritasunari dagokienez, zentroaren ardatza izango da hurrengo belaunaldiko sare-teknologiaren (adibidez, egungo 5G sareak eta etorkizuneko 6G sareak) ikerketa eta garapena. Bestalde, adimen artifizialaz eta datu-analitikaz ari garela, ikertuko da nola erabil daitezkeen zerbitzu eta eragiketak hobetzeko; esate baterako, sarearen arazoak aurreratzeko, baliabideen kudeaketa optimizatzen eta zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzeko.

Zibersegurtasunari dagokionez, zentroaren jardura sare finko eta mugikorrek, azpiegiturak, sistemak eta datuak babesteko segurtasun-soluzio aurreratuen ikerketan eta garapenean ardatzuko da. Horretarako, alderdi hauek landuko dira, besteak beste: mehatxuen detekzioa denbora errealean, jokaera anomaloen azterketa, autentifikazio segurua eta identitatearen kudeaketa.

Jarduera osagarriak

Sareko konputazioari eta zerbitzu digitalei lotutako ekimenak ere egingo dira Euskaltelen instalazio berrietan. Hala, hodei-arkitektura hibridoak, hodeian informazioa biltegitzeko eta prozesatzeko zerbitzuak eta zerbitzuen malgutasuna eta eskalagarritasuna hobetzeko software-soluzioak ikertuko dira.

Automatizazioaren eta robotikaren esparruan, barne-prozesuak automatizatzen eta eraginkortasun operatiboa optimizatzen robotak erabiltzea aztertuko da.

Blockchaina ere aplikatu daiteke telekomunikazioen eremuan. Testuinguru horretan, erabilera-kasuak aztertuko dira, hala nola identitate digitalaren kudeaketa, autentifikazio segurua, transakzioen erregistroa eta zerbitzu fidagarri eta gardenen hornikuntza.

Azkenik, errealitate birtual eta areagotuari dagokionez, ikertuko da nola erabil daitezkeen teknologia horiek trebakuntza hobetzeko, urrunetik laguntza teknikoa emateko, bezero-esperientzia hobetzeko eta zerbitzu interaktiboak eskaintzeko.

MasMovil/Euskaltel Taldeari buruz


MASMOVIL Taldea Espainian azken urteetan hazkunde handienetakoa izan duten operadoreetako bat da. Telefonia finkoko, mugikorreko, banda zabaleko Interneteko eta TBko zerbitzuak eskaintzen ditu, eta, horiez gainera, zerbitzu berri batzuk ere eskaintzen ditu, hala nola energia, osasuna, alarmak eta zerbitzu finantzarioak (etxeko bezeroentzat, enpresentzat eta operadoreentzat).

Ez da azpiegitura astunen operadore tradizional bat, baina, hala ere, FTTHren estaldurarik handienetako sarbidea eskaintzen die 28 milioi etxetan baino gehiagotan eta 3G, 4G eta 5G sare mugikorretarako sarbidea Espainiako herritarren % 98,5i, azpiegitura propioa eta besterena konbinatzeko estrategia hibridoari esker.

Gainera, MASMOVILek 5G zerbitzuak merkaturatu ditu; dagoeneko eskuragarri daude Espainiako 1.700 udalerritan gutxi gorabehera.

Banda zabaleko eta zuntz optikoko operadore onenaren sariak jaso izan ditu MASMOVIL Taldeak. Gainera, Espainian zuntz-sare bizkorrena duen operadorea da, nPerf enpresaren azterketa baten arabera, eta telefonia finkoko zerbitzu onenak eskaintzen ditu operadore guztien artean.

MASMOVIL Taldeak zero karbono-emisio garbi izatea lortu zuen 2020an 1 eta 2 irismenetan, eta 2021ean ere bai –Euskaltel Taldea ere sartzen da kalkulan—. Europar hori lortu duen lehenengo telekomunikazio-operadorea izan da, eta emisio-hondakinen maila absolutu txikiena du kontinentean. Gainera, B Corp ziurtagiria lortu duen Europako lehenengo telekomunikazio-enpresa izan da, eta ingurumenean eta gizartean eragin positiboa sortzeko konpromiso sendoa dauka. Cinven, KKR eta Providence Equity Partners MASMOVILeko kide dira 2020ko azarotik.



Follow us:

MASMOVIL Group website: <https://www.grupomasmovil.com/> Twitter: <https://twitter.com/grupomasmovil>

Press contact:

Fernando Castro fernando.castro@masmovil.com

Telefonoa: (+34) 656.160.378

Euskaltel Komunikazioa

comunicacion@euskaltel.com